

Antxiñako fotografixia



Portalekua orain dala berrogei bat urte

Azkenengo 40 urte honeitan **Portaleku** aldian hamai-ka kanbixo egon bada be, fotografixa honen barrenian ikusi geinkienak eztau, oraingoz, aldakuntza sakonik euki. Etxiok, gutxi gorabehera, hortxe agerketan diran moduan dagoz. Ezkerretik eskumara: **Diortxuena** (*Aranzazu* tabernia), **Bidebain** (*Zurutuzaren* garajia), **Lekunbarri** alderako kalia, **Araoztarrarena**, **Agustin Portaleku** (*Altzaganeko* barberixia) eta azkena **Portalekua** izeneko etxia.

Aurrekaldia, ostera, argazkixan oso ondo igarri ez arren, zihero aldatu zan. Portalekutik Bidaurretaruntz kamiño barrixa zabalketarakuan, ezker aldian agiri dan

zubixa bota egin zan. Baiña ez hori bakarrik: Ubao errekan eguen San Martin azpiko **presia**, San Juan kaleraño zixoian **malatua**, Lezesariko **labaderua**, eta Olanan erre-kako presatik Arrueneko fabrikara etorren **malatu-zati** haundixena be galdu ziran, aittatutako bariantiori burutu zanian. Lehenengo planuan jarrirta dagozenak **Arantxa Goenaga**, *Diortxuenukua*, eta **Bittori Arregi**, *Murgiko errotakua*, dittugu.

J.E.

Fotografixa eta argibidiak Agustin Goenagarenak dira.



A&M
school of english

Lazarraga, 3
Tfnoa: 71 61 37
Aita Madina, z/g.
Tfnoa: 71 61 17



GUZTIZ-EDER

Arantzazu Txintxurreta
Estetika eta masajea
Bio-Col tratamenduak

Etxaluze Etxea. Kale Barria, 54-1º F
Tfnoa: 78 01 46 ONATI



ZUBI LAST S.L.



LEIRO ISOLAGARRIAK
• PVC alemaniar sistema
• Aluminio Termikoa

Zubillaga industrialdea
Tfnoa: 71 61 89 ONATI